

Hernanik kronika

TOKIKOM 2013ko abenduaren 17a, asteartea ::: 4.587 zk. ::: www.kronika.net



❖ HERNANI ERROTZEN
Koldo Martinez,
Kataluniako
independentziari
buruz, gaur Biterin

Koldo Martinez Garate iruñarrak hitz egingo du gaur, 19:30etan, Biterin. *Catalunya ¿un próximo estado independiente?* hitzaldia emango du, eta hemengo egoerari buruz ere ariko da. ||

SAHARAR HERRIAREN ALDEKO LAGUNAK - HITZALDIA GAUR

Sahara Mendebaldeko gatazka politikoa, Hassanna Aaliak-en ahotik, gaur

Saharar gazte honi bizi guztiko kartzela zigorra jarri dio Auzitegi Militar batek. Berak hitz egingo du hiru puskatan zatituta dagoen herriaren egoerari buruz. 19:30etan, Biterin.

MENDEBALDEKO Sahara hiru zatitan dago banatua, eta gatazka politiko handia bizi du Marokorekin. Herri horrek bizi duen egoerari buruz hitz egingo du gaur, 19:30etan, Biterin, Hassanna Aaliak gazteak, giza eskubideen alde lanean ari denak. Saharako okupazioari buruz ariko da, zapalkuntza eta errepresioari buruz, eta 40 urteko gatazkaren ondorioak azalduko ditu.

Hizketagai, errefuxiatu kanpamenduetako egoera, sufrimendu eta ametsak, besteak beste...

Marokon epaitu dute Aaliak Aaliak gazteak ez dauka bere lurrera nolahi bueltatzetik, Marokoko Auzitegi Mili-

tar batek bere kontrako epaia emana baitauka: bizi guztiko kartzela zigorra, hain zuzen.

Hainbat dira Aaliak egoera berdinean daudenak edo bestelako ondorioak jasari izan dituzten sahararrak. Gaur horietako gehiago ere izango dira hitzaldian, eta era askotako testigantzak entzun ahal izango dira bertan. Horregatik, herritar guztiei egin diete hitzaldira azal-

tzeko, giza eskubideetan interesa izan dezakeen jende guztiari, eta herri baten erresistentzia borrokan ere bai.

Errefuxiatu kanpamenduak egoera bereziki larria Askok aipatzen dira errefuxiatu kanpamenduak, izan ere egoera bereziki larria bizi dute bertan. Gaurko hitzaldian hango sufrimendu eta ametsi buruz ere ariko dira. ||

❖ PLENOA

Udal Aurrekontuak eta lau mozio, gaur

2014ko Udal Aurrekontuei buruz ariko dira gaur, 19:00-etatik aurrera, Pleno Aretoan. Lau mozio ere izango dituzte, eta tartean Instituturako eraikin berria ez egitearen kontrako mozioa, gurasoek aurkeztua. ||

❖ EREÑOTZU

Gabonetako kontzertua, bihar

Kontzertua izango da bihar, 19:00etan, Ereñotzuko San Antonio parrokiaren bertan ariko dira Txirrita eskolako ikasleak, Doinu Zale eskolako ikasleak, eta Ozenki abesbatza. Merienda izango da. ||

❖ URUMEA IKASTOLA

Urumeako ikasle ohiei deia, Inude eta Artzaietan parte hartzeko

Urumea ikastolak 50 urte bete ditu aurten, eta ospakizun gisara, datorren Inude eta Artzaietan ekitaldian ikasle ohiak ateratzea nahi dute. Parte hartu nahi dutenek bi telefono hauek dauzkate: 685 727 387 - 688 660 707. ||

Izoki entsaladaren sekretuak, Irizaruko sukaldarien eskutik, Xalapartan

Hiru plater prestatu zituzten atzo Xalaparta elkartearen izoki entsalada hotza; basauntz solomilloa fruta gorri, udare eta ardoarekin; eta turroi moussea melokotoiarekin.

IRIZAR sukaldari eskolako bi sukaldari izan ziren atzo Xalaparta elkartearen, 50 hernaniarri euren sukaldeko sekretuak erakusten. Ez zuten nolanhiko otordua prestatu. Izoki entsalada hotza, basauntz solomilloa fruta gorri, udare eta ardoarekin, eta turroi moussea melokotoiarekin.

Denen aurrean egin zituzten hiru platerak, eta errezeta orriak banatu zituzten jendearen artean, etxera eramanez eta han probatu dezaten ikasitakoak. Xabi Urdangarin eta Pili Carbonell izan ziren atzokoan protagonista eta irakasle, eta Xalaparta elkartera azaldu ziren 50 hernaniarrak ikasle, eta etorkizunean mokadu goxoen prestatzaile. Gabonetarako bada zer prestatua Hernaniko etxeetan. ||



Pili Carbonell eta Xabi Urdangarin, errezetak erakutsi eta prestatzen.

Izkiña jatetxea
Goizuetan
948 51 41 02

**ZORIONAK MAIALEN,
AITOR ETA BEÑAT!!**

**Aupa Iraulio Panttalone
Bertso Eskola!!**

KUSKAL PRESOK
KUSKAL HERRIRA

TELEFONAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 092 ● **DYA**: 943 464622
 ● **Autobusak**: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
 ● **Anbulatorioa**: 943 006666 - 943 203020 ● **Jokalari anonimoak**: 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak**: 943 331103
 ● **FARMAZIAK** ● Egunez: **Chucua** Kardaberaz 48 - 943 551793 ● **Gauetz**: **Aldabe** Perkaiztegi 8 (Antziola) - 943 336022

HERNANI ETA BESTE BOST UDAL

«Erraustegia egin gabe, herritar guztien osasunak irabazi du»

Hernaniko Udalak eta inguruko beste bost Udalek zorionak eman dizkiete herritarrei, Zubietan erraustegirik ez delako egingo.

«ERRAUSTEGIA Zubietan ez egitea guretzat eta gure seme-alabentzat egundoko albistea da». Hori adierazi zuten Zubietan Hernani, Andoain, Astigarraga, Donostia, Hernani eta Lasarte-Oriako Alkateek.

Partzuergoak hartutako erabakia

Erraustegia ez da egingo Zubietan, Hondakinen Partzuergoak hala erabaki baitzuen orain dela hilabete batzuk. Erabaki horren aurrean, Zubietan inguruko sei herrik adierazpen instituzionala kaleratu dute, eta herritarrek zoriondu egin dituzte. «Urte luzez sufritu behar izan dugu planta toxiko horren mehat-

«Erraustegiaren inguruan minbiziagatik heriotza 9 aldiz haundiagoa izaten da, beste herrietan baino»

xua, baina dagoeneko esan daiteke mehatxu hori iragana dela». Osasun arazoei erreparatu die batez ere, erraustegia kritikatzeko garaian: «jakina da horrelako planta batek toxikoak isurtzen dituela airera eta minbiziagatik heriotza 9 aldiz handiagotzen dela inguruko herrietan».

Baina beste arazoi batzuk

ere aipatu dituzte. Horietako bat, ekonomikoa: «krisi garaian 400 milioiko proiektua ezin zuen jasan Gipuzkoak».

Beste arazoi bat, ingurumenekoa: «Europak dio 2020-rako birziklatu daitekeena ezin dela erre... Erretzean oinarritutako kultura batetik, birziklatzean oinarritutako kulturara pasatzeko, ezinbestekoa zen errauskailua alde batera uztea».

Zero Zabor, hurrengo pausoa Erraustegia ez egitea ez da azken pausoa izan, Alkateen hitzetan, eta Zero Zabor politika zabaltzea aipatu dute, etorkizunean egin beharreko bide bezala. ||

KIROLA - ASTEBURUKO EMAITZAK

FUTBOLA			ESKU PELOTA - Gipuzkoako Txapelketa		
Mut. Erreg. Oh.	Hernani-Antzuola	3-1	Seniorrak	Esnaola-Murgiondo/Behar Zana	18-22
Emak. Euskal Liga	Hernani-Arratia	0-0	Jubenilak	Arrasate/Cisneros-Rodriguez	22-16
Mut. Erreg. Gor.	Hernani-Mariño	1-0	Kadeteak	Intxurre/Pagola-Lazkano	22-9
Jub. Mut. Eu.	Eibar-Hernani	0-0	Infantilak	Oihan Zugasti/Oiarpe	2-1
Jub. Mut. Oh.	Mariño-Hernani	1-0	Infantilak	Alde Zaharra/Ekaitz Insausti	2-0
Jub. Emak. Eu.	Hernani-Amara Berri	0-0	ESKU PELOTA - Trinketea		
Kad. Mut. Oh.	Hernani-Dunboa Eguzki	2-1	Seniorrak 1	Altuna-Alde Zaharra	40-16
Kad. Em. Oh.	Hernani-Intxaurdi	3-3	Seniorrak 2	Ander Lopez-Eple	29-40
Kad. Em. 1.	HernaniUsurbil-Touring	0-1	Seniorrak 2	Mikel Zurutuza-Antigua	27-40
Kad. Mut. 1.	Hernani-Euskalduna	9-0	Seniorrak 2	Iñaki Esnal / Behar Zana	32-40
Infantil txiki	Hernani-Vasconia	1-4	Seniorrak 2	Gaszteleku-Markel Lizeaga	17-40
Inf. Mut. Oh.	Añorga-Hernani	2-3	Jubenilak	Urnieta-Cisneros	35-26
Inf. Mut. 1.	Luberrri-Hernani	0-3	Kadeteak	Oiarpe - Xabat Pagola	30-22
Inf. F-8	LaSalle-Hernani	8-0	ERRUGBIA		
Alb.	Hernani-Añorga	2-2	Mut. Ohor. Maila	Hernani-Universidad de Vigo	26-31
			Emak. Euskal Liga	Durango-Urbe / Hernani	10-12
SASKIBALOI			Mut. Euskal Liga	Baztan-Hernani Txinparta	37-0
Seniorrak	Cafes Aitona-Hernani	78-79	Mut. Euskal Liga	Hernani Landare / Durango	64-7
Jub. 2. urt	Atko-Hernani	56-67	Kad. (sub18)	Getxo-Hernani	14-31
Jub. 1. urte	Hernani-Easo	32-37	Kad. (sub16)	Ordizia-Hernani	19-45
Kad. Mutil 2	Hernani-Easo	48-41	Infantil (sub14)	Ordizia-Hernani	7-14
Kad. Mutil 1	Hernani-Easo	36-57	ERREMONTEA		
Kad. Neska	Añorga-Hernani	52-14	1go partidua	Seguroa-Aizpuru III/Otaegi-Larrañaga	15-35
Inf. Nes. 2	Hernani-Take Montezkue	24-29	2. partidua	Urriza-Barrenbea IV/Etxeberria IV-Juaristi-Ion	28-40
Inf. Mut. 1	Arri-Hernani	66-15	3. partidua	Ezkurra-Endika/Uterga-Agirrezabala	25-18
			4. partidua	EzkurraII-Olazar/Juananea-Saldias	39-40

EGURALDIA **GAUR** Hegoaldeko haizeak joko du gaur ere, nahiko zakar. Graduren bat hotzago baina eguzkia nagusi. Iristear den frontearen lainoak ikusiko dira. Min.6° / Max.16°

BIHAR Hego-mendebal zakarra bihar ere protagonista, eta eguzkia eta lainoak txandan, pixkanaka, estaliz-estaliz. Iluntzean euri tantaren bat ere izan liteke. Min.7° / Max.17° (euskalet)

GAZTE TXOKOA

Bideo jokoetan aritzeko eguna gaur

Hernaniko Gazte Txokoan ez dute nolanhiko eguna gaur. Izan ere, gazteek hainbeste maite duten horretan ariko baitira gaur: bideo-jokoetan. Hurrengo ekitaldia, larunbatean: Santo Tomas. ||

PATIN ESKOLA

Patinetan ikasteko hiruhileko kurtsoak, eta izenematea zabalik

Patinetan ikasi nahi dutenek aukera ederra dute Hernanin, patin-eskolak emango baitira bertan. Hiruhileko kurtsoak izango dira, bi kurtso hain zuzen, eta bi mailatan apuntatu ahal izango da. Hastapeneko maila, eta hobekuntza maila. Ostegun arratsalde. Kurtsoak 60 euro balio ditu. Idatzi: www.patineskola.com. ||

DAITEKE

Tailerra bihar, bakarkako elkarrizketak nola egin behar diren lantzeko

Daiteke Zerbitzuak bi orduko tailerra emango du bihar, 10:00etatik aurrera, eta bertan landuko dute nola egin bakarkako lan elkarrizketa bat. Langabetu zein langileentzat dira tailerrak, eta dohanik. Apuntatzeko: 943 57 54 24 edo jaiunea@daiteke.com. ||



ASTIGARRAGAKO AEK

Pintxo lehiaketa, euskaltegiako giro ederrean

Astigarragako AEK Euskaltegiak urtero antolatzen du festa moduko bat, gela bateko eta besteko ikasleek elkar ezagutu dezaten. Aurten pintxo lehiaketa egin dute, eta denei gai berdina emanda, pintxorik dotoreena eta ederrena zeinek prestatu aritu dira. Giro ederra nagusi, eta ondorenean, euskerazko esaldi eta hitz ederrenkin euskeraren egunean Astigarraga apaindu zuten. ||

IRAGARKI MERKEAK

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, aurikuloterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)



**ZORIONAK
AMONA
PETRA!**

93 urte

**Zure
familiarren
partetik**

MASUSTA EKODENDA

Elikagai Biologikoak
(barazki eta frutak barne)
Senda Belarrak
Kosmetika Ekologikoa
Liburuak...

-MEDIKU NATURISTAREN KONTSULTA
-TNDR MASAJEA
-KIROMASAJEA, KIROL-MASAJEA, DIGITOPUNTURA
-YOGA KLASEAK
-ZEN MEDITAZIOA
-TERAPIETARAKO ESPAZIOA ALOKAGAI

KARDBERAZ, 43 - HERNANI
Tel.: 943 55 57 10



RUEDA DE ASIA

Florida auzoan,
DIA eta LIDL-en ondoan

**PREZIORIK
ONENAK**

55 APARKALEKU

ORDUTEGIA 9:15 - 21:15